Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko otsailaren 11, asteartea — 27 — Martes, a 11 de febrero de 2020

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA

*190/2020 Foru Agindua, otsailaren 4koa, 2020ko ekitaldirako deialdia egiten duena Gipuzkoako Foru Aldundian praktika akademikoak egingo dituzten Lanbide Heziketako prestakuntza zikloetako nahiz unibertsitateetako ikasleei ikasketa laguntza edo poltsa emateko.*

Departamentuko foru diputatuak honako agindu hau eman du 2020ko otsailaren 4an:

Diputatuen Kontseiluak 2013ko irailaren 3an eta urriaren 1ean hartutako erabakien bidez (2013ko irailaren 11ko eta urriaren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak, 173 eta 199 zenbakiak) onetsi ziren, hurrenez hurren, Unibertsitateko eta Lanbide Heziketako heziketa zikloetako ikasleek Gipuzkoako Foru Aldundian praktikak egiteko programa arautzen duten oinarriak. Oinarri horietan jasotzen da ikasketa laguntza edo poltsa bat ordainduko zaiela ikasle horiei, praktika akademikoak Foru Aldundian egiteak eragiten dieten gastua konpentsatzeko.

Ikasturte berriari dagokion praktiketako programa laster hasiko denez, 2020ko ekitaldi ekonomikorako deialdia egin behar da.

Azaldutako guztiarengatik, foru diputatu honek

EBAZTEN DU

*Lehenengo.* 2020ko ekitaldirako deialdia egitea Gipuzkoako Foru Aldundian praktika akademikoak egingo dituzten Lanbide Heziketako prestakuntza zikloetako nahiz unibertsitateetako ikasleei ikasketa laguntza edo poltsa emateko.

Deialdia foru agindu honi erantsita doa.

*Bigarren.* Baimena ematea 83.800 euroko gastua egiteko aipatutako deialdiari aurre egitearren, kontu sail hauen kargura: 75.000 euro 1 0410.110.480.01.02 2020 kontu sailaren kargura, eta 8.800 euro 5.0410.110.480.01.02.2021 kontu sailaren kargura.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitalpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko foru diputatu honi, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA

*Orden Foral 190/2020, de 4 de febrero, por la que se efectúa la convocatoria correspondiente al ejercicio 2020 para la concesión de la bolsa o ayuda al estudio al alumnado de los ciclos formativos de Formación Profesional y al alumnado universitario que realice sus prácticas académicas en la Diputación Foral de Gipuzkoa.*

La diputada foral del Departamento, con fecha 4 de febrero de 2020, ha dictado la siguiente orden:

Por Acuerdos del Consejo de Gobierno Foral de 3 de septiembre y de 1 de octubre de 2013, publicados en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 173 y 199, de 11 de septiembre y de 17 de octubre de 2013, se aprobaron, respectivamente, las bases reguladoras del programa de prácticas académicas para el alumnado universitario y el alumnado de los ciclos formativos de Formación Profesional en las que se contempla el abono de una bolsa o ayuda al estudio para compensar el gasto ocasionado a este alumnado por la realización de prácticas académicas en la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Estando próximo el inicio del programa de prácticas correspondiente al ejercicio 2020, procede realizar la convocatoria para dicho ejercicio económico.

Por todo lo expuesto, esta diputada foral

RESUELVE

*Primero.* Efectuar la convocatoria correspondiente al ejercicio 2020 para la concesión de la bolsa o ayuda al estudio al alumnado de los ciclos formativos de Formación Profesional y al alumnado universitario que realice sus prácticas académicas en la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Esta convocatoria se adjunta como anexo a la presente Orden Foral.

*Segundo.* Autorizar un gasto de 83.800 euros con cargo a las partidas presupuestarias 1.0410.110.480.01.02.2020-75.000 € y 5.0410.110.480.01.02.2021- 8.800 € para hacer frente a la citada convocatoria.

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante esta diputada foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

EK\CV GAO-I-2020-00711

Hau guztia denen jakinaren gainean jartzen da.

Donostia, 2020ko otsailaren 5a.—Alfonso Acarreta Rodríguez, Departamentuko idazkari teknikoa. (711)

ERANSKINA

*2020ko deialdia, praktika akademikoak Gipuzkoako Foru Aldundian egingo dituzten Lanbide Heziketako prestakuntza zikloetako nahiz unibertsitateetako ikasleei ikasketa laguntza edo poltsa ematekoa.*

*1. Oinarri arautzaileak ezartzen dituzten xedapena, eta zein Aldizkari Ofizialetan dauden argitaratuta.*

1. Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2013ko irailaren 3koa, 2013ko irailaren 11ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (173 zk.) argitaratua, unibertsitateetako ikasleei zuzendua.

2. Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2013ko urriaren 1ekoa, 2013ko urriaren 17ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (199 zk.) argitaratua, Lanbide Heziketako prestakuntza zikloetako ikasleei zuzendua.

*2. Baliabide ekonomikoak.*

1. Deialdi honetako ikasketa poltsa edo laguntzetara 83.800euro bideratuko dira guztira, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretako 75.000 euro 1.0410.110.480.01.02.2020 eta 8.800 € 5.0410.110.480.01.02.2021 kontu sailen kargura.

2. Baimendutako gastuaren zenbatekoa handitu ahal izango da, aurkeztutako eskaerak ebatzi aurretik beti ere, eta aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena duen organoak hala erabakita, deialdi berria egin beharrik gabe.

*3. Ikasketa poltsa edo laguntzaren zenbatekoa.*

Laguntza hau hileko 300 eurokoa izango da.

Gehieneko zenbatekoa ordainduko da eguneko ordutegia zazpi ordukoa bada, astelehenetik ostiralera, asteburuak eta jai egunak izan ezik.

Hala ez bada, kalkulu proportzionala egingo da.

Berriz, % 33 edo gehiagoko desgaitasunen bat duten ikasleentzat, hileko 350 eurokoa izango da.

*4. Objektua.*

Gipuzkoako Foru Aldundiak ikasketetarako laguntza bat ordainduko dio hilero ikasle bakoitzari praktika akademikoak egiteagatik sortzen zaizkien gastuak konpentsatzeko.

*5. Baldintzak.*

Prestakuntza denez praktika akademiko hauen izaera, bertatik ez da inola ere eratorriko lan harreman batek sor ditzakeen betekizunik; eta praktiken edukiak ezin dira aitzakia izan Gipuzkoako Foru Aldundiaren lanpostuen berezko lan prestazioa haien bidez ordezteko. Ikasketak amaitutakoan ikaslea Gipuzkoako Foru Aldundiko plantillan sartuko balitz, praktiketan egindako denbora ez da kontuan hartuko antzinatasuna kontatzeko garaian.

*6. Xedea.*

Programa honen xedea da unibertsitateekin eta lanbide heziketako ikastetxeekin lankidetzan jardutea, ikasleen prestakuntzaren kalitatea hobetzeko, ikasketa planak osatuz ikasketatan jasotako jakintzaren aplikazio praktiko bat eginez herri administrazioaren esparruan, eta prestakuntza bidean ikasleek izan dezaketen garapen profesionalari begira errealitate praktikoaren ezagutza bideratuz.

Lo que se publica para conocimiento general.

San Sebastián, a 5 de febrero de 2020.—El secretario técnico del Departamento, Alfonso Acarreta Rodríguez. (711)

ANEXO

*Convocatoria para el ejercicio 2020 de la bolsa o ayuda al estudio al alumnado de los ciclos formativos de Formación Profesional y al alumnado universitario que realice las prácticas académicas en la Diputación Foral de Gipuzkoa.*

*1. Disposiciones que establecen las bases reguladoras y los Boletines en los que están publicadas.*

1. Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 3 de septiembre de 2013, publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 173, de 11 de septiembre de 2013, para el alumnado universitario.

2. Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 1 de octubre de 2013, publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 199, de 17 de octubre de 2013, para el alumnado de los ciclos formativos de Formación Profesional.

*2. Recursos económicos.*

1. La cuantía total de la bolsa o ayuda al estudio a conceder en esta convocatoria será de 83.80000 euros con cargo a las partidas presupuestarias 1.0410.110.480.01.02.2020-75.000 € y 5.0410.110.480.01.02.2021-8.800 € de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2. El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado con carácter previo a las resoluciones de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria.

*3. Cuantía de la bolsa o ayuda al estudio.*

La cuantía de esta ayuda será de 300 euros mensuales.

El importe máximo se abonará cuando el horario sea de 7 horas/día, de lunes a viernes, salvo fines de semana y festivos.

Si no fuera el caso, se realizará un cálculo proporcional.

Para el alumnado con una discapacidad igual o superior al 33 % será de 350 euros mensuales.

*4. Objeto.*

La Diputación Foral de Gipuzkoa abonará a cada alumno o alumna una bolsa o ayuda mensual al estudio para compensarle de los gastos ocasionados por la realización de las prácticas académicas.

*5. Condiciones.*

Dado el carácter formativo de las prácticas académicas, de su realización no se derivarán, en ningún caso, obligaciones propias de una relación laboral, ni su contenido podrá dar lugar a la sustitución de la prestación laboral propia de puestos de trabajo de la Diputación Foral de Gipuzkoa. En el caso de que al término de los estudios el alumno o alumna se incorporase a la plantilla de la Diputación Foral de Gipuzkoa el tiempo de las prácticas no se computará a efectos de antigüedad.

*6. Finalidad.*

Colaborar con las universidades y centros educativos de formación profesional para la mejora en la calidad de la formación del alumnado, completando sus planes de estudios mediante la aplicación práctica de sus conocimientos en el ámbito de la administración pública y posibilitando, a su vez, el conocimiento de su realidad práctica de cara al posible desarrollo profesional de su formación.

EK\CV GAO-I-2020-00711

*7. Lehiarik gabeko konkurrentzia araubidea.*

Ikasketetarako laguntzak emateko prozedura lehia gabeko konkurrentzia da; eta Gipuzkoako Foru Aldundian praktika akademikoak formalizatzean, praktikak hasi aurretik, eskaera egiten duten unibertsitateko eta Lanbide Heziketako prestakuntza zikloetako ikasle guztientzat izango da.

*8. Laguntza eskatzeko baldintzak.*

Foru Agindu honek ezartzen duen laguntzaren onuradun izateko baldintzak dira:

— Lanbide Heziketako ziklo bateko edo unibertsitate bateko ikasle izatea eta ikasten duen ikastetxeak hautatua izatea.

— Sinatzea akordio edo hitzarmen berezia eta praktikak onartzeko agiriak, kasu bakoitzari dagozkion oinarri arautzaileen II. eta III. eranskinetan jasotako ereduaren arabera, eta baita ere praktikak egin ahal izateko beharrezkoak diren gainerako agiriak.

— Prestakuntza modulua edo praktika akademikoak Gipuzkoako Foru Aldundiaren lantokietakoren batean egitea.

*9. Eskaerak aurkezteko eta horiek ebazteko epea.*

Ikasketa laguntza edo poltsa emateko eskaerak ikasleak dagokion praktika akademikoa formalizatzen duen unean aurkeztuko dira, eta Foru Agindu bidez ebatziko dira, aurkezten doazen heinean, aurrekontua agortu arte.

*10. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa eta informazioa.*

Ikasketa laguntzak emateko eskaerak horretarako ezarritako ereduetan formalizatuko dira praktikak formalizatzerakoan eskatzen diren gainerako agiriekin batera.

Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatzen duten agiriak ere aurkeztuko dituzte. Espresuki baimendu dezakete organo kudeatzailea, Gipuzkoako Foru Aldundian dauden beraien inguruko zerga datuak zuzenean kontsultatzeko.

Deialdiaren arabera onuradun bakoitzari ematekoa den zenbatekoa 3.000 euro baino gutxiago denean, V. eranskinak daukan ardurapeko adierazpena egin daiteke ziurtagirien ordez, hots, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzen duten ziurtagirien ordez.

% 33 edo gehiagoko desgaitasuna duten ikasleek aitortuta duten desgaitasunaren ziurtagiria, organo eskudunak igorritakoa, aurkeztuko dute.

*11. Prozedura bideratzeko eta ebazteko organo eskuduna.*

Gobernantza Departamentuko foru diputatua izango da ikasketetarako laguntzak emateko eta ordainketak egiteko organo eskuduna.

*12. Ebazteko eta jakinarazteko epea.*

Laguntzak emateko prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko ezartzen den gehieneko epea bi hilabetekoa da, laguntza eskaerak aurkezten direnetik kontatzen hasita.

Aurreko paragrafoan adierazitako gehieneko epea igarotzen bada ebazpena jakinarazi gabe, interesdunek ulertu ahal izango dute eskaera ezetsi egin zaiela, administrazioaren isiltasunagatik.

*13. Emandako laguntzak jakinarazteko eta publiko egiteko bitartekoa.*

Laguntzak emateari eta ordaintzeari buruzko ebazpenak bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziko zaizkie interesdunei,

*7. Régimen de concurrencia no competitiva.*

El procedimiento de concesión de las ayudas al estudio es el de concurrencia no competitiva y alcanzará a todo el alumnado universitario y de ciclos formativos de Formación Profesional que efectúe la correspondiente solicitud al formalizar las prácticas académicas en la Diputación Foral de Gipuzkoa, previamente a su inicio.

*8. Requisitos para solicitar la ayuda.*

Para ser una persona beneficiaria de la ayuda que se establece en esta Orden Foral es necesario:

— Ser estudiante de un ciclo formativo de Formación Profesional o universitario y ser seleccionado por el centro educativo en el que cursa sus estudios.

— Haber formalizado los documentos de aceptación del acuerdo o convenio específico y de la práctica, según el modelo que se recoge en los anexos II y III de las bases reguladoras respectivas, así como el resto de documentos necesarios para su formalización.

— Realizar el módulo de formación o de prácticas académicas en los centros de trabajo de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*9. Plazo de presentación de las solicitudes y resolución de las mismas.*

Las solicitudes de concesión de la bolsa o ayuda al estudio se presentarán en el momento en que cada alumno o alumna formalice su correspondiente práctica académica y se resolverán, mediante Orden Foral, a medida que se vayan presentando hasta agotar las disponibilidades presupuestarias.

*10. Documentación e información que deben acompañarse a la solicitud.*

Las solicitudes de concesión de las ayudas al estudio se formalizarán en los modelos establecidos al efecto junto con el resto de la documentación exigida en el momento de formalizar la práctica.

Asimismo deberán adjuntar los certificados de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social. Podrán autorizar expresamente al órgano gestor para que pueda acceder directamente a sus datos tributarios obrantes en la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Cuando la cuantía a otorgar a cada persona beneficiaria no supere el importe de 3.000 euros, la declaración responsable contenida en el anexo V sustituirá a la presentación de las certificaciones de acreditación del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

El alumnado con discapacidad del 33 % o superior deberá aportar el correspondiente certificado de discapacidad reconocida, emitido por el órgano competente.

*11. Órgano competente para la instrucción y resolución del procedimiento.*

La diputada foral del Departamento de Gobernanza será el órgano competente para resolver la concesión de las ayudas al estudio y efectuar su abono.

*12. Plazo de resolución y notificación.*

El plazo máximo que se establece para resolver y notificar la resolución del procedimiento de concesión de las ayudas es de dos meses desde la presentación de las solicitudes de las mismas.

Transcurrido el plazo máximo señalado en el párrafo anterior sin haberse notificado la resolución, las personas interesadas podrán entender desestimadas sus solicitudes por silencio administrativo.

*13. Medio de notificación y publicidad de las concesiones.*

Las resoluciones de concesión y de abono de las ayudas se notificarán a las personas interesadas por medios electrónicos,

EK\CV GAO-I-2020-00711

prozedura honen hartzaileak ikasleak direlako eta bitarteko horiek eskura izateko eta bertara iristeko gaitasun tekniko eta profesional nahikoa dutelako.

Ondorio horietarako, interesdunek baimena ematen dute laguntzak emateari eta ordaintzeari buruzko ebazpenen jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egin daitezen, hala xedatzen baitu 2010eko irailaren 28ko 23/2010 Dekretuak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzekoak.

Diru laguntza horiek emateari eta ordaintzeari buruzko ebazpena bitarte elektronikoen bidez jakinarazteko, eskatzaileek Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertu behar dute, https:www.gfaegoitza.eus helbide elektronikoaren bitartez. Ondorio horietarako, egoitza elektronikoan agertzea ulertzen da interesdunak jakinarazpenaren edukian sartzea.

Jakinarazteko betebeharra betetzat joko da jakinarazpena egoitza elektronikoan eskura jartze horrekin.

Jakinarazpen horrez gain, hiru hilean behin argitaratuko da Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko Iragarki Taulan (https:www.gfaegoitza.eus) ikasketa laguntzen onuradunen zerrenda. Gainera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da, laguntzaren zenbatekoa 3.000 euro baino gehiagokoa denean.

*14. Bide administratiboari amaiera ematea.*

Ikasketa laguntza edo poltsa eman edo ez eman erabakiko duen ebazpenak amaiera emango dio bide administratiboari.

*15. Deialdia argitaratzea.*

Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

dado que las personas destinatarias de este procedimiento son estudiantes con una capacidad técnica y profesional que garantiza su acceso y disponibilidad a los medios electrónicos necesarios para ello.

A tales efectos, las personas interesadas consienten la práctica de las notificaciones de las resoluciones de concesión y de abono de las ayudas por medios electrónicos, de acuerdo con lo dispuesto en el Decreto 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral de Gipuzkoa.

La resolución que apruebe su concesión y abono se notificará electrónicamente mediante comparecencia de los solicitantes en la sede electrónica de la Diputación Foral a través de la dirección electrónica https:www.gfaegoitza.eus. A estos efectos se entiende por comparecencia en la sede electrónica el acceso por la persona interesada al contenido de la notificación.

Se entenderá cumplida la obligación de notificar con esta puesta a disposición de la notificación en la sede electrónica.

Con independencia de esta notificación, se publicará trimestralmente en el Tablón de Anuncios de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa ubicada en la dirección electrónica https:www.gfaegoitza.eus la relación de las personas beneficiarias de las ayudas al estudio, publicándose en el Boletín Oficial de Gipuzkoa en el caso de que su importe supere la cuantía de 3.000 euros.

*14. Fin a la vía administrativa.*

La resolución por la que se concede o no la bolsa o ayuda al estudio pondrá fin a la vía administrativa.

*15. Publicación de la convocatoria.*

La convocatoria se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2020-00711